

Kuaderno gisa egina, hogeitortzi orrialde baizik ez ditu bere 29,5 zentimetro zabal eta 20 zm. alturaz dituelarik. Baina baitxukun argitaratua. Patxi Oroz Arizkurenen bitartekotasunari esker, gure literaturarentzat ohore handia da Tübingen-eko Unibertsitatearen babesean argitaratzea. Izan ere, poesia gaietan burua haina bihotz behar da eta Oroz Arizkurenek Atienzak baino sentipen gehiago erakutsi digu Arestiren poesiaz. Zentzunez ere baietz esango nuke.

Argitalpen hontan Aresti zenaren «Nire aitaren etxea» dertizan poema agertzen da Patxi Oroz Arizkurenen musika konposaketaz, III-XIV orrialdeetako pentagramaren arabera, bakarrean eta koruaren laguntzaz kantatzeko eran. Ondoreko orrialdeetan, poemaren testua, euskara jatorrean (pentagraman bertan datorrena lerroz-lerro jarria) eta beste honako hamazazpi hizkuntzetara itzuliz ematen da: gaztelaniaz, katalanez, errumanieraz, portugesez, italieraz, frantsesez, okzitanieraz, alemanez, nederlanderaz, errusoz, ingelesez, arabez, suedieraz, suomieraz, txineraz eta jeroglifoz. Hamazazpigarren orrialdean dakar itzultzaileen zerrenda.

Azaleko irudia Gina Roma-rena da, irapena Georg Schlauch eta Martin Ulrich-ek egina. Azken orrian beste bi irudi datoz, xilografiazkoak antza denez, Hap Grieshaber-enak.

Pozgarri zaigu holako zabalkunde lanak ikustea. Nork pentsa zezakean egiptoarren jiroglifoz Aresti zenaren poema ikustea?

Hori baldin bada askoren ustezko unibertsaltasuna, aurreantzean inork uka ezin Aresti, euskara bidez, unibertsala ez zenik. Horrekin gogoratu nahi dut Madriden Iparragirre saria (1968. urtean) jaso zueneko anekdota hura. Bere *Harri eta Herri* itzulpenez ezagutu zuen periodista batek esan zionean: «Señor Aresti, con el renombre que usted ha alcanzado y con lo bien que domina el castellano, podría Vd. obtener mayores beneficios económicos saliendo de los cauces estrechos del vascuence para escribir en la lengua de Cervantes». Eta, Gabriel-en ihardespina honako hau izan zen: «Sepa usted que yo soy un poeta, y no un chatarrero».